

Euskararendako ideologia bat gazteentzat, mesedez



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Institutura itzuli naiz duela pare bat aste, denbora batez baimen egoeran egon ondoren, eta aspaldiko partez, D eredura. Gogotsu nengoen gaztetxo "euskaldun"ekin topatzeko, urte luzeak egin ditudalako A ereduari eta Lapurdiko B eredu modukoan –hezkuntza nazional frantsesean–, eta nekatuta bainengoen euskaldunok halakoetan sentitu ohi dugun arrotasun egoeraz. Euskara irakasten aritzea, baina hain mundu paraleloan, ezin izanik ikasleekin euskara hutsez erlazionatu, edo naturalki euskal kultura bizi, edo erreferentziak eta mundu-ikuskerak partekatu.

Pentsatzen nuen etxeko goxora itzultze moduko bat izango zela, baina hara non ikusi berri dudana dena fantasia hutsa izan dela, ameskeria galanta. Bai, egia esan, asko tristetu naiz ikasleen hizkuntza-jokabidea ikusita, erdararekiko joera ia erabatekoa dute, baina hortik areago, beren hizkuntza-hautuarekiko halako harrotasun moduko bat erakusten hasi dira, lotsagabekeria handiagoko, guri ere erdaraz egiten digutela, damu eta ahalge izpirik batere adierazi gabe gure ohartarazpenen aurrean. Kezkatzekoa.

Ez nuke ikasleen kontra bakarrik jo nahi, nahiz eta onartu behar dudana oso barneko fibra bat ukitzen didan kontua dela hizkuntzarena, eta hala izaki, aha-

legin berezia egin behar izaten dudala erreaktibotasunean ez erortzeko, harremana arriskuan ez sartzeko. Errazena ardura guztia beraien gain jartzea litzateke, baina analisi simple eta inozentea litzateke inondik ere, gu ere bagarelako erantzule, eta badakigulako zuzenean interpelatzen gaituela gazteek egiten duten guztiak. Gustatu ez arren, gure ispilu dira, garenaren sintoma eta ondorio zuzen.

Erdara modu desafiatazilean erabiltzearen arrazoiak, gazteen beharrik batere kontuan hartu gabe segitzen duen hezkuntza-eskaintzaren erreakzio modu bat dela iruditzen zait, edo hala dela pentsatu nahi dut behintzat. Gu gara sistema horren agente, eta erdarak ematen digun minaren jakitun direnez, horren kontrako amorrua adierazteko modua topatu dute horretan, arma eraginkor bat. Sintoma da, eta duena baino garrantzia handiagorik ez ematen saiatzen naiz.

Eta erdaraz aritzeko inertzia hori, edo euskaraz egiteko zailtasunarena, gure mendekotasun eta zapalkuntza egoerak esplikatzeko du, horrek sortzen duen diglosia gero eta handiagoak. Herri menderatuak, gutxietsia eta azpiratua du hizkuntza ere, eta nekez lehiatu daiteke euskara erdararen nagusitasun osoarekin, gazte baten begietara, behi-

nik behin. Zein hizkuntzari helduko zenioketen zuek, gazteak bazinete, Iruñerrian (adibidez)?

Herriaren normalizazioan (independentzia) ezarri beharko genuke arreta, eta horretara bildu gure indar guztia, horixe da-eta euskarak duen gaitzerako sendabide bakarra, badakigu. Politika gorenaren eremuan jokatzeko da hizkuntzaren biziraupenaren partida, eta konponbidea ez dago, hortaz, hezkuntzaren esku, edo ez behintzat bakarrik. Baina, zerbait egin al daiteke gure eremuan? Jakina baietz. Gure ikasleak soziopolitikoki alfabetatu, euskararen arazoaren testuinguratzeko egokia eginez, gertatzen zaigunaren arrazoiak garbiki azalduz. Ez da asko, baina zerbait bada.

Emakumeon zapalkuntzari hezkuntzaren eremuaren hasi garen trataeraren antzeko zerbait egitea, adibidez, ez da hain zaila. Arazoa zapalkuntza-sistema handiago baten baitan –heteropatriarkatua– ulertu behar dela esaten zaie ikasleei, eta marko egokian kokatzen laguntzen duen ideologia baten tresna –feminismoa– eskaintzen. Zergatik ez dugu berdin jokatzeko euskararekin? Zergatik ez ditugu berreskuratzen *inperialismo* edo *nazio-zapalkuntza* kontzeptuak?

Ez dakit, baina datuak alarmanteak dira. Yuppiren munduetatik ateratzeko garaia heldu da. ●